



## ZEGAMA KO UDALA

### **2022KO MARTXOAREN 22AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2022KO OTSAILAREN 22KO BILKURAREN AKTA).
- 2.- HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.
- 3.- EUSKARA ETA KULTURAKO TEKNIKARIAREN LANALDIAREKIKO ESKAERA.
4. ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 5.- GALDE ERANTZUNAK.

#### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

##### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

##### **ZINEGOTZIAK**

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).  
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).  
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)  
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).  
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).  
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).  
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).  
Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

#### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Bilkura-kide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

### **1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2022KO OTSAILAREN 22KO BILKURAREN AKTA).**

Alkateak, 2022ko otsailaren 22ko bilkuraren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.



## ZEGAMAKO UDALA

### **2.- HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.**

Espedientea ikusirik.

Hiri lurren balio gehikuntza arautzen duen ordenantza aldaketaren proposamena ikusirik, 2022ko martxoaren 15eko Ogasun Batzordean aztertutakoaren arabera.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehenengoa.- Hiri lurren balio gehikuntza arautzen duen ordenantza aldaketa onartuz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta 30 eguneko epea eskaintzea erreklamazioak aurkezteko.

Bigarrena.- Alegaziorik ez badago, erabakia behin-betikotzat joko da.

### **3.- EUSKARA ETA KULTURAKO TEKNIKARIAREN LANALDIAREKIKO ESKAERA.**

Euskara eta Kultura teknikariaren lanpostuaren berariazko osagarria (dedikazio bereziko tartea) gehitzeko proposamena aztertu da, eta, ondorioz, lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena.

Kontuan hartuta lanpostuaren balorazioa egin dela, eta igoera justifikatuta dagoela hainbat jaiegunetan eta hainbat ekitalditan dedikazio berezia izateagatik, bai eta ohiko lanalditik kanpo bilerak (finkoak ez direnak) egiteagatik ere.

Aldaketa hori aspaldi eskatu zen, eta langileak ekitaldi honetan eskaerari erantzuteko eskatu du.

Administrazio onaren printzipioak eskatzen du erakundea etengabe egokitzea gertatutako aldaketetara, horrek azpiko errealitate ekonomikoaren eta antolaketaren irudi fidela eman dezan.

Kontuan hartuta LPZ aldatzeak ezin duela ordainsari osagarrien igoera orokorrik ekarri, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Kontuan hartuz LPZ eta, ondorioz, haren aldaketak onartzea Udal Osoko Bilkurari dagokiola, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta esleipen hori ezin dela eskuordetu.

Zegamako Udalak ez du ez ordezkartza sindikalik ez horretarako eratutako negoziatio-mahairik. Hala ere, aurkeztutako proposamena Udalhitz hitzarmenean jasotako aukeren arabera adostu da langilearekin.

Aldaketa-proposamenak ez du eraginik udal-aurrekontuarekin batera onartutako plantillan.



## ZEGAMA KO UDALA

Langileen eta Kontuen Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman du 2022ko martxoaren 15ean.

Eztabaidatu eta bozkatu ondoren, Udalbatzak, aho batez, ERABAKI DU

Lehenengoa.- Euskara eta Kultura teknikariaren lanpostuari dagokion berariazko osagarria (dedikazio bereziko tarte) gehitzea, eta, ondorioz, lanpostuen zerrenda aldatzea, honela:

Langilearekin adostutakoaren arabera, lanaldi bereziko tartearen berariazko osagarria aldatuko da, honako honen arabera:

- % 5 luzatutako lanaldiaren modalitatean (UDALHITZ hitzarmenaren 74. artikulua).
- % 5 erabateko baliagarritasun modalitatean (UDALHITZ hitzarmenaren 75. artikulua).

Osagarri horiek, atzera indarrarekin, 2022ko urtarrilaren 1etik ezarriko dira.

Bigarrena.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udal honetako iragarki-oholean eta bere webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Interesdunari erabaki hau jakinaraztea, bidezkoak diren errekursoak adierazita.

### 4. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 011/0222 erabakia, otsailaren 18koa, Azpeitiako Jabetza Erregistrotik eskatutako egiaztagiria bideratuz.
- 012/0222 erabakia, otsailaren 23ko, lan baimena emateari buruzkoa.
- 013/0222 erabakia, otsailaren 24koa, Dintibarrena Etxe-Berria eraikinari buruzko egiaztagiria bideratzea onartuz.
- 014/0222 erabakia, otsailaren 24koa, 3 zenbakidun fakturen erlazioa (otsaila 2) - guztira 20.578,70 euro- onartuz.
- 015/0222 erabakia, otsailaren 24koa, lan baimena emateari buruzkoa.
- 016/0222 erabakia, otsailaren 24koa, peoi lanak burutzeko kontratua bideratuz.
- 017/0222 erabakia, otsailaren 24koa, zeregin anitzetako ofiziala gaixotasun arrazoiak direla eta ordezkatzeko langilea kontratatuz.
- 01/0322 erabakia, martxoaren 1ekoa, Rural Kutxan kontu korrontea irekitzeari buruzkoa.
- 02/0322 erabakia, martxoaren 7koa, lan baimena emateari buruzkoa.



## ZEGAMAKO UDALA

- 03/0322 erabakia, martxoaren 7koa, Kasino Elkarteari Bertso Eguna antolatzeko baimena emanez.
- 04/0322 erabakia, martxoaren 10ekoa, biztanleen erroldan biztanle batzuei ofiziozko baja emateari buruzkoa.
- 05/0322 erabakia, martxoaren 14koa, hiri-lurren balio gehikuntza arautzen duen ordenantzaren aldaketa espedienteari hasiera ematekoa.
- 06/0322 erabakia, martxoaren 15ekoa, 4 zenbakidun fakturen erlazioa (martxo) - guztira 54.444,02 euro- onartuz.
- 07/0322 erabakia, martxoaren 15ekoa, hiri-lurren balio gehikuntzari buruzko zenbait kitapen ez bideratzeari buruzkoa.
- 08/0322 erabakia, martxoaren 18koa, Udal honen 2021(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzeari buruzkoa.
- 09/0322 erabakia, martxoaren 21ekoa, taxi zerbitzuak eskola garraioa bideratzeko eskatutako agiria bideratzeko.

### 5.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) jubilatuen elkarteak aurkeztutako mozioaz galdetzen du. Alkateak adierazten du aztertzekeo tarterik ez dutela eduki, eta hurrengo bilkurarako utziko dela. Zentzu honetan, banketxeen zerbitzuei buruzko kexa helarazten dela adierazten da. Bilkurakideak gaiari buruz hitz egiten dute. Alkateak azaltzen du Kutxabankek Zegaman zerbitzua murriztu zenean jaso zuen jakinarazpena azaltzen du eta bere kontrako iritzia ere adierazi ziela. Zerbitzuen murrizketa orokorra dela azaltzen da eta etorkizun batean zer gertatuko den jakiterik ez dagoela adierazten da. Zentzu honetan ere adierazten da (Izaskun Igoa Arizcorreta -Zegama Lantzen-) zerbitzuak telematikoki herritar askok erabiltzen badute ere, beste askok, adinagatik, ohituak ez daudela edo ezin dutela, eta ondorioz, zerbitzua beharrezkoa dela. Bilkurakideak adierazten dute hori eremu askotan gertatzen ari dela, administrazioan bertan adibidez. Era berean, Alkateak adierazten du Kutxaren laguntza programak murriztu egin direla ere.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) jubilatuen lokal berriaz galdetzen du. Alkateak adierazten du leku egoki bat bilatzeko azterketa egiten ari direla (Baztartxo, Mordoxka, Haizea, Itzala etab.) baina ezer finkatu gabe. Imanol Garmendiak zenbat diru kostako duen galdetzen du eta Alkateak adierazten du aurrekontuan 150.000,00 euro jasota badaude ere, diru horrekin ez dela egingo ziurrenik. Era berean, lokal bat erosiz gero, ondoren bertan egin beharko diren egokitzapenak baloratu beharko direla azaltzen da. Bestalde, arazoa, horrela behar zelako, Eguneko Zentroko plaza kopuruaren handitzeak ekarri duela adierazten da, eta ondorioz, gaur egun jubilatuen lokala Itzala tabernaren egoitzan kokatzen dela adierazten du Alkateak. Zentzu honetan, Izaskun Igoa Arizcorreta zinegotziak (Zegama Lantzen) adierazten du, jubilatuen esandakoaren arabera, zenbait ekintza leku faltagatik egin behar ez dituztela. Alkateak adierazten du, bere iritziz, leku



## ZEGAMAKO UDALA

falta ez dutela.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) Kultur Etxetik komun publikoetara doan pasabidea itxi edo babesteko beharra ikusten dutela, persona eta haur askok, pasabide hori erabiltzen dutelako errepidea igarotzeko. Bilkurakideak aukera desberdinei buruz hitz egiten dute (lorontziak, hesia, etab.) Alkateak adierazten du aztertuko dela.

Zentzu honetan ere, Aizkorpetik plazarako pasabidea aztertu eta egokitzearen komenigarritasuna ere aipatzen du Imanol Garmendia Iruretagoienak.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) erreka inguruan hesirik gabe dauden eremuak egokitzeko komenigarritasuna adierazten du. Alkateak adierazten du, URAk baimendu beharko duela. Imanolek dio, inguruko herrietan, hiri-gunean behintzat ibaia hesiarekin babestuta dagoela bere iritziz. Eremu batzuk lorategiak direla ere adierazten du Alkateak, nolnahi ere kontsultatuko duela adierazten du.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) asteburuan Goilaser enpresan egon zen istripua dela eta, familia eta lankideei elkartasuna adierazten du. Istripua nola gertatu zen azaltzen da, eta Alkateak larunbatean enpresara joan eta bertan ez zuela inor topatu adierazten du.
- Aritz Agirre Garikano zinegotziak (EH Bildu) euskara batzordetik, apirilaren 8an Korrika dela eta antolatuko diren ekintzen berri ematen du. Elkarteei partaidetza eskatzen ari zaie eta Udalak ere zenbait edari eta freskagarri jarriko dituela azaltzen da. Zegamako Udalak hartutako kilometroaren azalpena ere egiten da.
- Jose Luis Azurmendi Larrea zinegotziak (EH Bildu), Foru Aldundiak kirola sustatzeko ekimenen barnean, ostiral honetan Zegamatik-Segurara Nordic walking ibilaldia egingo dela azaltzen du.

Era berean azaltzen du, DBH1-DBH2 gazteen artean kirola sustatzeko programa bideratuko dela, Idiazabal, Segura eta Zegaman ekimen desberdinak eginez. Zegaman ekainaren 11 eta 12an egingo dela esaten da, eta ekintza rokodromoan burutuko dela.

Aztertzeke gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zazpiak eta hogeit hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasozazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.